



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaibuseko zerbitzu barria "azaroko lehenengo hamabostaldia igaro orduko" hasiko dala jakinarazo deutse Garamendik Batzar Nagusiei

Bilbon, 2014ko urriaren 24an

Bizkaibuseko zerbitzu barriak martxan hasteko eguna oso gertu dago. “Ez da azaroko lehenengo hamabostaldia baino gehiago” luzatuko, Itziar Garamendik gaur goizean jakinarazo dauenez, Foru Aldundiaren esku dagoan herri arteko zerbitzuaren mapa barria marrazteko emoten ari diran pausuak azaltzeko, berak eskatuta Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian. “Egun berean” zerbitzua emoten hasiko diran 89 lineak, irailaren 23an Gobernu Kontseiluak esleitutako bost guneen barruan dagozanak dira: Busturialdea-Lea Artibai (15 linea), Ezkerraldea (22), Enkarterri (8), Txorierrri-Mungialdea (23), eta Nerbioi-Irratia-Durangaldea (21).

Diputatu andreak, esleipena lortu daben enpresek autobusak zirkuletan hasiko diran egunera arte bete behar dituen pausuak eta izapideak azaldu ditu Bizkaiko Kamarako Herri Lan eta Garraioetako batzordearen aurrean. Horreen artean, eskatutako dokumentazioa eta, beste puntu batzuen artean, beharginen eureganatzea eta autobusen eta ondasun finkoen erabilgarritasuna garatuko dauen ezarpen plana aurkeztea dago.

Garamendi pozik agertu da esleipen horreek dirala eta. Kopuru osoa “747.508.448,73 eurokoa” da, hau da, haserako aurrekontua baino “%3,39ko batez besteko beherapena” erakusten dau; prozesuan parte hartu daben beste enpresek ez dabe “inolako helegiterik” aurkeztu, oso gitxitan gertatzen dan gauzea –bere berbetan–, eta esleipen horreek “kalidade saltu garrantzitsua” ekarriko dabe Bizkaibuseko zerbitzuan.

GREBEA BIZKAIBUSEN

Garamendi, EH Bildu taldeak eskatuta be agertu da, urtebete dala Bizkaibuseko alde sozialagaz izandako negoziaketan ondorioz lortu ziran akordioan inguruan zertan aurreratu dan eta zeintzuk diran Aldundiak hartutako konpromisoak azaltzeko, azkeneko asteetan gai horrek mobilizazino eta lanuzte barriak eragin dituela kontuan izanda. Diputatuak, 2013ko urriaren 4tik gertatu danaren barri emon dau. Egun horretan bere sailak eta UGT, CCOO, ELA eta LSB-USO sindikatuek, Bizkaibuseko emakida barrien lizitazino prozesuari buruzko akordioa lortu eben. Egun horretatik aurrera sindikatuakaz izandako zazpi bileretan landutako eta adostutako puntuak be azaldu ditu.

Diputatu andrearen berbetan, Jarraipen Batzordearen saio horreetan, “sindikatu guztiek” bost emakidetako beharginen subrogazinarako erespideak adostu ahal izan ditue. Hori da Bizkaibuseko greba jardunaldi barriak eragin dituen puntuetako bat. “Erespide horreek egungo enpresa guztietan aplikau dira, subrogauen behin betiko zerrendak egiteko”, esan dau Garamendik, eta behin eta barrero azpimarratu dau “behargin guztiak subrogau egin dirala”. “Inork ez dau bere lanpostua galduko”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Gai horri jagokonez, esan dau “lizitazinora aurkeztu ziran enpresen artean, eta azkenean esleipena lortu dabenen artean, batak be ez dauela zalantzan jarri subrogazinarako eta orain arteko lan baldintzakaz jarraitzeko daukan beharra”. Aldi baterako kontratua eukien beharginei jagokenez –hori beste gatazka puntu bat da–, Aldundiak berretsi egin dau bere konpromisoa, soziedade kudeatzaile barriek behargin horreek lortu dabenean esperientzia kontuan hartu daie, baina gai hori “argi eta garbi negoziatzeko kolektiboko gaia” dala adierazo dau.

Garamendik guzurtatu egin dau Aldundiak orain aukerarik daukanik atzerapausoak emoteko zabalik dagozan lehiaketetan, sindikatuek eskatzen dabenean moduan, lineek une honetan dagozan moduan jarraitu daie. Aldundiak Bizkaibusen berrantolaketea lehiaketara aterateko “legezko obligazioa dauka”. Zerbitzuan gertatzen ari diran lanuzteei bukaera emoteko “une honetan proiektuak baztertzeko eskatzea –beharginen ordezkariak proposatu dabenean– akordiorik lortu gura ez izatea da”, lehiaketak geldiarazoteak “milioi askoko ondare erantzukizuna” eragingo leukelako, esan dau.

Diputatu andreak adierazo dauenez, desagertu egingo diran uri barruko lineei (Artxanda, El Regato eta Santa Marina), jagoken puntuan be, Aldundiak bere konpromisoa bete dau, linea horreetako zerbitzua udalek (Barakaldok eta Bilbok) eskiniko dabelako, eta bertako beharginak, emakidak lortu dituen enpresek subrogatu dituelako.

Garamendik esan dauenez, bere saila zerbitzu barriak ezarteko proposamenetan beharrian ari da, alde sozialak eskatzen eban moduan. Proposamen horreen artean honek aitatu ditu: A3334 (Santurtzi-Balmaseda) linea hobetzea; bidaiari gehieneko orduetan Balmaseda-Zalla arteko linea espres bat martxan jartea; EHU-Enkarterri zerbitzu zuzena jartea; A-336 – A337 – A3338 lineen kadentziak hobetzea; abuztuan be Muskiz-Bilbo zerbitzua eskintzea; eta linea eta zerbitzu barriak “aztertzen eta ezarten” jarraitzeko konpromisoa.

Jasaten ari garen greba “bidebakoa eta justifika ezina” dala esan aurretik, Aldundiaren borondateak “gairitu ezin daitekean horma baten kontra jotzen dauela” adierazo dau Garamendik. “Horma hori sindikatuek osatzen dabe”. Sindikatuek “orain arte bilatu dabenean gauza bakarra beharginen lan egoera hobetzea edo finkatzea izan da” eta ez zerbitzua hobetzea. Halanda be, “lehertu arte jarraituko dogu berbetan”, grebaren amaiera lortzeko.

Aitor Torre EH Bilduko ordezkariak barriz, Aldundiak ez dituala bere konpromisoak bete uste dau. Konpromiso horreen artean “maiztasunak eta ibilpideak hobetzea eta linea barriak martxan jartea” eta Aldundiak “lanpostuen amortizazioa baimentzea” egozan. Bere eretziz, gatazka konpontzeko ezinbestekoa da enpleguari eustea eta linea barriak ezartea. “Ezin dogu onartu Bizkaian gune ilunak izaten jarraitzerik”, esan dau.

Jesús Isasik (PP) bere errespetua erakutsi gura izan dau beharginen grebarako eskubidearen eta herritarrek garraioa erabilteko daukian eskubidearen aurrean “baita sabotajeak dagozanean be”. Galdetu egin dau, Aldundia eta sindikatuak egiten ari diran negoziatzeko prozesua ez ete dan legearen kontrako, batzarretako taldeek lizitazioetan aldaketak planteatu ebezan alegazio epealdiari balio guttia kendu jakolako. Bere ustez “lan arazoa” enpresek konpondu behar dabe, eta enpresak sindikatuakaz subrogazioa sinatzearen alde agertu da.

PSE-EE-ko Joaquín Colmenerori “deigarria egin jako” lanuzteek eta mobilizazioek sindikatuen “%100eko” laguntzea izatea, hori “ez dalako ohikoa izaten” beste lan gatazka



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

batzuetan. Batzordekide sozialistak uste dau saila ez dala gatazkea desblokeetako gai, akordioaren “puntu batzuk” ez diralako beteten ari.

EAJ-PNV-k defendidu egin dau akordioa lortzeko Aldundia egiten ari dan ahalegina. Nerea Ahedo batzordekidea bat etorri da Garamendigaz, sailak orain urtebeteko akordioko puntu “guztiak” bete dituala esatean. “Inork ez dau bere lanpostua galduko eta lan baldintzek bardin jarraituko dabe”. Bizkaibusen berrantolaketea be defendidu dau. “Ardurabakotasuna izango litzateke orain 20 urte planifikautako lineakaz bardin jarraitzea”. Bere ustez, grebeak “ez dauka zerikusirik” enpleguagaz eta zerbitzuaren hobekuntzagaz, “Aldundian eragin gura dan desgasteagaz” baino. “Larriagoa” iruditzen jako beste batzuek –sindikatuak– Lurraldeko garraio politikea zuzendu gura izatea.

SALGAIEN GARRAIOARI EGINDAKO IKUSKAPENAREN BALANTZEA

Bizkaiko Batzarretako Herri Lan eta Garraioetako batzordean bertan beste batzorderatze-eske bat be gauzatu da, oraingo honetan Bizkaiko Talde Popularrak egindakoa, Diputatu andreak salgaien garraioan egin diran ikuskapenen eta edegi diran espedienteen barri emon daian. Behar hori Herri Lan eta Garraioetako foru saileko Garraio Zuzendaritzak egiten dau, Eusko Jaurlaritzagaz koordinata.

Sektorearen barruan “iruzurrezko praktikak deuseztatzeko” eta “leialtasun bako lehia bertan behera ixteko” foru politikaren barruan, Garamendik azaldu dau 2014ko lehenengo seihilekoan datuak eskatu jakezala “228 garraio enpresari”, “359 gidari” kontrolau dirala, eta “takografo digitalen 11.242 disko eta artxibo” aztertu dirala. 2013an 41.497 disko irakurri ziran.

Diputatu andreak, Ikuskapen zeregin horreetara zuzenduta dagozan giza baliabideaen barri emon dau. Garraio zuzendaritzak 4 teknikari, Ikuskapen laguntzarako 8 laguntzaile eta 5 administrari ditu. 2014ko urte honetan orain arte edegitako espediente kopurua “433koa” da. Horreetatik “361” Ertzaintzak egindako ikuskapenaren ondorioz edegi dira, eta “72 espediente” Garraio Zuzendaritzak berak egindako ikuskapenaren ondorioz. 2013an 1.085 espediente edegi ziran.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Garamendi anuncia que el nuevo servicio de Bizkaibus comenzará "no más allá de la primera quincena de noviembre"

Bilbao, a 24 de octubre de 2014

La entrada en marcha de los nuevos servicios de Bizkaibus está muy cerca. No irá “más allá de la primera quincena de noviembre”, según ha anunciado esta mañana Itziar Garamendi, en una comparecencia solicitada por ella misma en las Juntas Generales para explicar los pasos que se van dando de cara a dibujar el nuevo mapa de servicio interurbano dependiente de la Diputación. Las 89 líneas que entrarán en servicio “el mismo día”, son las incluidas en las cinco zonas adjudicadas el 23 de septiembre por el Consejo de Gobierno: Busturialdea-Lea Artibai (15 líneas), Ezkerraldea (22), Enkarterri (8), Txorierri-Mungialdea (23), y Nerbioi-Irratia-Durangaldea (21).

La diputada ha explicado a la comisión de Obras Públicas y Transportes de la Cámara vizcaína, los pasos y trámites que restan a las empresas adjudicatarias hasta esa fecha para que los autobuses comiencen a circular. Entre ellos, se encuentra la entrega de la correspondiente documentación exigida y un plan de implantación que desarrolle aspectos como la incorporación del personal y la disponibilidad de autobuses y bienes fijos, entre otras cosas.

Garamendi se ha congratulado de que estas adjudicaciones, que suman un montante total de “747.508.448,73 euros” lo que representa una “bajada media del 3,39%” en relación al presupuesto inicial, no hayan suscitado la presentación de “ningún recurso” por parte de otras empresas, algo poco habitual -según ella- y que las mismas supondrán un “importante salto de calidad” en el servicio de Bizkaibus.

HUELGA EN BIZKAIBUS

Garamendi también comparecía para dar cuenta, a petición de EH Bildu, de los avances y compromisos alcanzados con los sindicatos de Bizkaibus respecto al acuerdo alcanzado entre ambas partes el año pasado, que ha derivado estas semanas en nuevas movilizaciones y paros. La diputada ha hecho un relato de lo ocurrido desde el 4 de octubre de 2013, día en el que su departamento y los sindicatos UGT, CCOO, ELA y LSB-USO alcanzaron un acuerdo sobre el proceso de licitación de las nuevas concesiones de Bizkaibus. Se ha referido también a los puntos tratados y acordados con las centrales durante las siete reuniones mantenidas desde esa fecha.

Según la diputada, estas sesiones de la Comisión de Seguimiento han servido para que “todos los sindicatos” hayan podido acordar los criterios de subrogación del personal de las cinco concesiones, uno de los puntos que ha propiciado nuevas jornadas de paro en Bizkaibus. “Criterios que se han aplicado en todas las actuales empresas para la confección de las listas



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

definitivas de los subrogados”, ha dicho Garamendi que ha insistido en varias ocasiones en que “la totalidad de la plantilla se ha subrogado”. “Nadie va a perder su puesto de trabajo”.

En este aspecto, ha sostenido que “ninguna empresa licitadora, ni finalmente adjudicataria, ha cuestionado su obligación de subrogación y mantenimiento de las condiciones laborales”. Con respecto al personal eventual -otro de los puntos de fricción-, la Diputación se reafirma en su compromiso de que las nuevas sociedades gestoras cuenten con la experiencia adquirida por este personal, aunque ha advertido que este tema es una cuestión “clara de negociación colectiva”.

Garamendi ha negado que la Diputación pueda ahora dar un paso atrás en lo referente a los concursos abiertos, como demandan los sindicatos, para que mantenga las líneas tal y como están. La Diputación “tiene la obligación legal” de sacar a concurso la reordenación de Bizkaibus. “A estas alturas la retirada de los proyectos –propuesta por los representantes de los trabajadores- era no querer alcanzar un acuerdo” que acabe con los paros en el servicio, ya que paralizar los concursos supondría “responsabilidades patrimoniales millonarias” ha advertido.

La diputada ha indicado que en el punto referido a las líneas urbanas que desaparecían (Artxanda, El Regato y Santa Marina), la Diputación también ha cumplido, ya que estas líneas serán prestadas por los municipios afectados (Barakaldo y Bilbao) y sus trabajadores han sido subrogados por las empresas concesionarias.

Garamendi ha indicado que su departamento está trabajando en propuestas de implementación de nuevos servicios, como pedía la parte social, entre los que ha citado la mejora de la línea A3334 (Santurtzi-Balmaseda); la puesta en marcha de una línea exprés Balmaseda-Zalla en hora punta; un servicio directo UPV-Encartaciones; la mejora de las cadencias de las líneas A-336 – A337 – A3338; el mantenimiento del servicio en agosto Muskiz-Bibao; y el compromiso foral de seguir “estudiando e implementando” nuevas líneas y servicios.

Antes de tachar la huelga actual de “injusta e injustificable”, Garamendi se ha referido a que la voluntad de la Diputación “choca contra un muro imposible de atravesar. El muro que forman los sindicatos”. Estos “sólo han buscado hasta ahora mejorar o consolidar la situación laboral de los trabajadores” y no la mejora del servicio. Aún así, "dialogaremos hasta la extenuación" para conseguir el fin de la huelga.

Por contra, el representante de EH Bildu, Aitor Torre cree que la Diputación no ha cumplido con los compromisos adquiridos entre los que se encontraban la "mejora de frecuencias, recorridos y nuevas líneas", y el hecho de que la Diputación “permita la amortización de puestos de trabajo”. Sostiene que la solución del conflicto pasa por el mantenimiento del empleo y por generar nuevas líneas. “No podemos consentir que sigamos teniendo zonas oscuras” en Bizkaia, ha dicho.

Jesús Isasi (PP) ha manifestado su respeto por el derecho a la huelga de los trabajadores y por el derecho de los ciudadanos a ser transportados “incluso cuando hay sabotajes”. Se ha preguntado si el proceso de negociación que mantienen Diputación y sindicatos no pueda estar vulnerando la ley, al desvirtuarse el periodo de alegaciones en donde los grupos junteros plantearon cambios en las licitaciones. Cree que el “problema laboral” lo tienen que arreglar las empresas y se ha mostrado partidario de que éstas firmen la subrogación con los sindicatos.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A Joaquín Colmenero, del PSE-EE, le ha “llamado la atención” que los paros y movilizaciones tengan un apoyo sindical “del 100%”, algo que “no suele ser habitual” en otros conflictos laborales. El apoderado socialista cree que el departamento “no es capaz” de desbloquear el conflicto porque hay “algunos puntos” del acuerdo que no se están cumpliendo.

El PNV ha defendido el empeño de la Diputación por llegar a un acuerdo. Su apoderada Nerea Ahedo ha coincidido con Garamendi en que el departamento ha cumplido con “todos” los puntos del acuerdo de hace un año. “Nadie va a perder su puesto de trabajo y se van a mantener las condiciones laborales”. También ha defendido la reordenación del Bizkaibus. “Sería irresponsable mantener líneas planificadas hace 20 años” y cree que la huelga “no tiene nada que ver” con el empleo y la mejora del servicio, sino con el “desgaste al Ejecutivo”. Considera “más grave” que otros -los sindicatos- quieran dirigir la política de transporte del Territorio.

BALANCE DE LA INSPECCIÓN AL TRANSPORTE DE MERCANCÍAS

En la misma comisión de Obras Públicas y Transporte de la Cámara vizcaína, se ha sustanciado también otra petición de comparecencia, en este caso solicitada por el grupo Popular Vizcaíno, para que la diputada ofreciera datos de inspecciones y expedientes abiertos con respecto al transporte de mercancías, labores que la Dirección de Transportes del departamento foral de Obras Públicas y Transportes hace en coordinación con el Gobierno Vasco.

En el marco de la política foral “por erradicar las prácticas fraudulentas” dentro del sector y “eliminar la competencia desleal”, Garamendi se ha referido a que durante el primer semestre de 2014 han sido requeridos datos a “228 empresas transportistas”, siendo controlados “359 conductores” y habiendo sido analizados “11.242 discos y archivos de tacógrafo digital”. En 2013, se realizó la lectura de 41.497 discos.

La diputada ha indicado los recursos humanos destinados a estas las labores de Inspección. La dirección de Transportes cuenta con 4 técnicos, 8 auxiliares de Inspección y 5 administrativos. El número de expedientes incoados en lo que va de 2014 es de “433”. De ellos, “361” se han incoado como resultado de la inspección realizada por la Ertzaintza y “72 expedientes” como resultado de la inspección realizada por la propia Dirección de Transportes. En 2013, se alcanzó la cifra de 1.085 expedientes.